


Baionako Euskal Museoa
ERAKUSKETA

TROMELIN

ESKLABO AHANTZIEN UHARTEA

2017ko ekainaren 17 – azaroaren 5



Marazkia S. Savoia/argazkia J.-F. Rebeyrotte

TXOSTEN PEDAGOGIKOA

AURKIBIDEA

Erakusketa Euskal museoan

LEHEN PARTEA

- 5. o > Ekialdeko Indietako frantses konpainia
- 6. o > Zazpi urteko gerla
- 7. o > Baiona, Utileren eraikitze eta armamentua
- 9. o > Port-Louis-era buruzko bidaia
- 10. o > Madagaskarko bidaia
- 12. o > Hondoratzea
- 13. o > Bizirik iraun Hondarrezko uhartean

BIGARREN PARTEA

- 16. o > Jan eta edan
- 18. o > Fabrikatu eta konpondu
- 19. o > Aterpetu
- 21. o > Bizi sozial baten antzuak igurikatu
- 22. o > Tromelinen hil
- 23. o > Hondoratuen salbamendua
- 24. o > Desforges-Boucher bere garaikideen kritikei ihardukitzen

Pedagogikoki erabiltzeko

- 25. o > Erreferentziak programetan
- 27. o > Erakusketaren bisitarako aurre baldintzak
- 27. o > Erakusketaren bisitararen luzapenak
- 31. o > Irakasle bibliografia
- 32. o > Haur bibliografia

ERAKUSKETA EUSKAL MUSEOAN

« Zinismo handiarekin, historia hau honela laburbiltzen ahalko genuke: haien bizia salbatzeko, biziki giristinoak ziren frantses batzuk haien kargamendua abanbonatzera behartuak izan direla. Beharrezkoena baizik ez dute hartu, hondoratu diren uhartetik jalgitzeko menturazko ontzixkan eramangarria izan dadin: bizigaiak eta haien kapera eramangarria. Uharte hau oraindik hondarrezko uharte deitzen zen. 1761eko irailaren 27a zen. Eta hiru hikabete lehenago iruzurrez erosi 160 esklaboek osatzen zuten kargamendu hori. Gaur egun Maurizio deitzen den Frantziako uhartera joateko, usaiaz kanpoko bide bat hautatu zuten, iparraldetik pasatzeko. Uztailaren 31ko gauan, Utile haien itsasontzia porroskatzen zen Tromelin uharte inguratzen duten uharrien kontra. Goizaldean, eskifaiako 123 gizonak bizirik dira, baina itsasoan galdua den kilometro karratu bat baino gutiago izartzen duen lur zati ñimiño horretan preso. Ez dute ez urik ez eta bizigairik eta aterperik, uhartetik jalgitzeko neholako molderik ere ez. Esklabeoi dagokienez, ehun bat baino gutiago bizirik atera da hondoratzearen ondotik.

Bizia antolatzen da, itsasontzi hondakinean zenbait gauza errekupeatuak dira: bizigailuak, ur, arno, pattar, irin, arteki eta idiki turrilak, bai eta tresnak, egurra, belak...

Ahal den guzia! Eta eskifaiari emandakoa murriztua bada ere, deus ez zaie ematen esklabeoi. Lehen putzu bat arrakastarik gabe zilatua da, eta ondotik bigarren bat eta ura atzematen dute. Orduan esklabeoi ematen hasten ahal dira. Bitartean, hauetarik hogoita hamar bat hiltzen da. Masta eta belekin, bi kanpaleku eraikitzen dituzte, bata beltzentzat, bestea xurientzat. Ondotik Providence deitu ontzixka eraikitzen dute Madagaskarrera itzultzeko; labe bat itzulerako bixkotxak egosteko...

Eskifaiako 123 gizonak esklaboak abandonatuz abiatuko dira, lekuri aski ez baita denentzat. (...) hamabost urte iragan dira azken hauek salbatzera etorri aitzin.

Arrazoin desberdinengatik gertatu da hau: uharte aurkitu eta bertaratzeko zailtasunak, baina gehien bat administrazioak, eta bereziki Frantziako uharteko gobernadoreak gertakari honen gordetzeko erakutsi nahikeria. 1775etik goiti baizik ez dira itsasontziak haien salbatzera igorriak izanen, azturak aldatu zirelako. Eta 1776ko azaroaren 29an, Tromelin ontzi entseinariak manatu Dauphinek bizirik iraun dutenak biltzen ditu: zazpi emazte eta zortzi hilabeteko haur bat. »

Thomas Romon eta Max Guérout, « La culture matérielle comme support de la mémoire historique : l'exemple des naufragés de Tromelin », In Situ [En ligne], 20 | 2013, 2013ko otsailaren 15ean sarean emana. Thomas Romon eta Max Guérout erakusketaren komisarioak dira.

Istorio honek oihartzun egiten dio Euskal Museoan aurkeztu historiako gai handi bati: Baionako portuko historia.

Ez dago ez uirk ez eta baliabide naturalik koralezko uhartetxo horretan. 1954az geroz, estazio meteorologiko automatizatu bat eta langile talde egonkor bat aterpetzen ditu.


Lehenik Hondarrezko Uharteak deitua izan da. 1817 arte igurikatu behar da zuzen kokatua izan arte. TAAF (Frantses Austral eta Antartikoko Lurrak) erakundeko prefetak kudeatzen duen uharte hau naturazko erresalbu gune sailkatua da, dortoka berdeen errute lekua baita. Xori koloniak aterpetzen ditu: zanga hankagorriak eta zanga maskadunak, bai eta beste itsas xori batzuk (mikak, fragatak, ...). Ermitauak ere ausarki atzematen dira Tromelinen. Ez da batere zuhaitzik hazten uhartean, zuhaixka bakar batek, scaevola taccadak lortzen du bizirauten, bai eta getozka bezalako landare herrestariak.

Itsas eta lurreko indusketei esker, uhartean 15 urte iragan dituzten hondoratuen bizi baldintzak ezaqutu ahal izan ditugu.

- Uhartearen maketa

- 1722an begiztatu Hondarrezko uhartea erakusten duen 1739an marraztu mapa baten erreprodukzioa

¹ Urdinez agertzen dira erakusketan aurkeztu objektu eta obrak.



ERAKUSKETAREN LEHEN PARTEARI ESKER

Hondoratzea testuinguru historiko, politiko eta ekonomiko zehatz batean birkokatzen ahal da eta Utileren etorkizuna ezagutu, Baionako portutik abiatu eta Indiako Ozeanoan hondoratu arte.

1. Ekialdeko Indietako Frantses Konpainia

Utile, Ekialdeko Indietako Frantses Konpainiak armatu itsasontzia da.

1664an² Colbert-ek sortuarazi Konpainia hau, Luis XIV.-arengandik Frantzia eta Asiaren arteko merkataritzaren monopolioa lortu zuten tratulari elkarte da.

Estatutu hauen arabera, errege manufaktura bilakatzen da horrek dakartzan abantaila guzietan, besteak beste zergak kentzea, merkataritzaren monopolioa ekialdeko hemisferoan (honi gehitzen zaizkio Afrika mendebaldeko kostak (Senegal, Ginea)), errege altxorraren garantia, enbaxadoreak izendatzeko, gerla deklaratzeko eta hitzarmenak izenpetzeko eskumena.

Konpainiak, beste batzuen artean, lehiatu nahi du bere holandar eta ingeles homologo eta aitzinekoekin merkataritza kolonial arloan. Horretarako, kapital handia dauka eta Lorient-en kokatzen da, bere administrazioa, biltegiak eta ontziolak bertan plantatuz. Bere merkataritza operazioak segurtatzeko, Konpainiak 30 edo 40 itsasontzi inguru mantentzen ditu batez beste, Indietako Faktoretara (Pondichéry, Chandernagor), Txinatik (Kanton) buruz itsasoratzeko. Itsasontzi hauek Asiatik kafea, tea, piperra, kanela, potasio nitratoa, kauriak, tindurako erabili egurrak, Txinako porzelana eta kotoia.

Indiako Ozeanoan dituen gibelaldeko base hauek Indiarekin segurtatzeko konpainiak Mascareignes uharteak (Bourbon eta Frantziako Uharteak) erabiltzen ditu. 1715ean, Frantsesek betirako Herbeheretarren lekua hartzen dute engoitik Frantziako uharteak berriz deitua den Maurizion, honen kudeaketa zuzenki konpainiari emana zaio 1721ean. Hortik goiti, kolonia garatzen da frantses kolono eta Bourbon uhartetik eta Madagaskarretik datozen esklabo batzuk bertan plantatuz.

Eramaten duen aktibitatearengatik, konpainia buruz buruko borroka batean sartzen da ingeles interes kolonialetan. Konpainiak ordainduriko Frantziako uharteko gobernadoreek aktiboki hartzen dute parte Frantzia eta Britainia Handiaren arteko militar operazioetan Indietako itsas bide osoan (besteak beste Austriako ondorengotza gerlaren garaian).

- Ekialdeko Indietako Konpainiaren jarduerari lotu salgaiak (kotoizko ohe apaindura elementu bat, kafe isurmokoa, kafe ehogailua, ontzileria, espeziak)

² Konpainiak failita egiten du 1769an. 1784an berriz antolaturik, monopolioa galtzen du 1791n.
© Lysiane Gauthier, Bordeleko herriko etxea

2. Zazpi urteko gerla

Estatu indartsuenen artean handituz doazen etsaigoak direla eta, gatazka nagusi bat abiatzen da, 1756 eta 1763 artean Frantziako erresuma eta Habsburgeko Estatuak, Britainia-Handia eta Prusiaren aurka jartzen dituen Zazpi urteko gerla. Gerla munduko hainbat lekutan gertatzen da (Europa, Ipar Amerika, India...).

Gerla hau bukatzean, Britainia Handiaren aldeko indarren berronkatze bat gertatzen da, ondorioz, honen inperioaren hegemonia hedatzeko 19. mendean.

Gerla bukatzean, Parisko ituna sinatzen dute beligeranteek: Frantziak Kanada galtzen du eta Indietan zenbait faktoria begiratzen ditu, hauen artean Pondichéry.

Gerlaren beste ondorioetako bat, 1769an Ekialdeko Indietako Konpainiaren faillita da, eta honen ontasunak errege administrazioa pasatzen dira.

Alabaina, gatazka militarra bilakatuz, Frantzia egoera katastrofiko batean sartzen da hainbat gerla bata bestearen ondotik galduz Indietan bezain bat Kanadan ere.

Eta hauez gain, 1759ko azaroaren 20an, frantses ontzidiak itsas gudu erabakigarria galtzen du Ingalaterraren kontra Quiberoneko badian, Kardinalen deitu batailan. Frantses ontzidiaren parte handiena suntsitua da³. Horrek eragin ontzidiaren ahultzearen ondorioz, erresumak ezin du gehiago bere itsas bideen segurtasuna bermatu. Beraz, 1761ean, Indiako ozeanoko frantses koloniak zuzenki mehatxatzen dituzte ingeles eskuadrek, hauen presentziak konpainiako kapitainek usaian kurritzen dituen bideak trabatzen dituztelarik. Egoera orokor bateko elementu hauek ere Utileren hondoratzearen aitzineko erabakietan eragina ukan dute.

- Nicholas Pocock, *The battle of Quiberon bay, 20th november 1759*, 1812, National Maritime Museum (erreprodukzioa).

³ Bataila horren ondotik frantses ontzidia 47 itsasontziz besterik ez da osatua de la Royal Navyko 135ei aurre egiteko itsasontzi hauek berriz armatzeko ahalik gabe, diru eskasez.



3. Baiona, Utileren eraikitzea eta armamentua

Zergatik Baiona? Zazpi Urteko gerla betean, Royal Navyk Atlantikoko kostako portuen blokeoa egiten du, bereziki Lorient, Ekialdeko Indietako frantses Konpainiako egoitza komertzial eta operazionalarena ⁴. Isasontziak ingeles patruilek gutiago mehatxatzen dituen gunen batean armatzen entseatzen da Konpainia. Baiona hautatzen du ⁵, arrantza, merkataritza eta gerla portua baita Pirinioetako oinean eta Espainiatik hurbil, itsasotik 5 / 7 km-ra.

Konpainiak hautatzen du bere itsasontziak Baionaraino ez eramatea arriskuegia delako. Nahiago ditu tokian berean zuzenki Errege Marinari Utile eta Adour berriki eraiki ⁶ itsasontzi berdinak erosi. Nolako itsasontziak? Bi filibote. Adour, itsasontzi biritxiaren neurriak desarmatze txostenean idatziak dira. Utilek 44 m-ko luzera zuen guti gorabehera, eta 10 m baino guttiagoko zabalera (2,97 m-ko zingoarekin hutsa delarik eta 4,86 m-koa kargaturik). Utile eta Adour zamako deitu itsasontziak dira, eta zehazkiago hastapenean gerlako zamako itsasontziak ⁷, erran nahi baita garraioa (gizonak, armak, janaria, itsasontzi-ospitalea etab.) 30 kanoiez hornitua da. Kargamendu espazioa eskaintzen duen itsasontzi mota hau xekatzen du gehien bat. Konpainiako zamako itsasontziak ez dira Indiekin edo Txinarekin merkataritzan aritzeko hautatuak. Koloniek beharrezkoak dituzten mozkinak eta tresneriak ekartzea dute zeregina. Kafez, adibidez, kargaturik itzultzen dira ondotik Frantziara.

Anartean, Madagaskarrera ere igorriak izaten ahal dira kolonietara ekartzen dituzten hazkurriak erosteko.

Zergatik Baionar tratulariak eta zergatik haiek zehazki? Armamentu operazio hau, desarmatzearena bezain bat Lorienten gertatzen da normalki, koadro administratibo eta logistiko arras usatu batean. Baionan, Konpainiak berak hautatu tokiko eragile batzuen esku besterik ez du armamentu zeregin hau utzi.

Laborde eragin handiko gizona da, eta 1752az geroz mailegu handiak onetsi dizkio Konpainiari eta berrikitan Luis XIV erregearen bankari gisa ezagutua izan da. Horregatik du Konpainiak hautatu. Konpainiak eman dio hedadurako tratulari honi Konpainiako solaskide kargua.

⁴ Konpainiaren zuzendaritza eta sozial egoitza Parisen kokatua da.

⁵ Baiona gerla, merkataritza eta arrantza portua da. Gehienik mastak egiteko Pirinioetako egur erretxinadun biltegi gisa erabilia da. Egur hau Erregearen gabarak eta filiboteak biltzen dute Ponanteko armategiak hornitzeko. Ontziola jarduerak eskasak dira eta gehienik itsasontzi ttipien eraikuntzara bihurtuak (Aturriko barra iragiateko itsasontzien zingoak mugatua izan behar du). Merkataritzari dagokionez, Baionak jarduera bizkorra darama arlo horretan, esportatzeko bezain bat inportazio mailan ere, Martinika, Santo Domingo, Kanadarekin (hau galdua izan aitzin), Espainia eta Holandarekin bereziki. Barnealdeko arnoak eta pattarrak, mundruna, erretxina, oihalak, artilea (horregatik badira ardiak eta artzainak bi ikuspegietan), armak eta, bistan dena mastak egiteko egurrak. Arrantzari dagokionez, Baionan bale ontzi gutiago baldin bada aitzineko mendeari konparatuz, bakailao ontzien hornikuntza biziki garrantzistua da eta horrela izanen da Kanada galdu arte (1763ko otsailaren 10ean, Parisko itunaren bitartez Frantziak Ingalaterra, Espainia eta Portugalen aurka egin gerlari bukaera ematen dio). Arrantza handi honen ondoan, kostako eta erreka arrantza aktibitatea burutzen da.

⁶ 1759ko maiatzan abiatu 15 hilabeteko eraikuntza.

⁷ hastapenean, errege marina 17. mendearen erditsutan hornitzen hasten den holandar zama itsasontzia da filibotea. « Ipurdi borobil » deitu lehen filibote hauek saihets borobilak eta zubi hertsiki bat dituzte. Popa karratundun filiboteek ordezkaturiko dituzte 1720tik goiti. Hauek garraio, biltegi edo ospitale ontzi gisa ere erabiliak ziren. Kanpotik gerla ontzi ikaragarri baten itxura badu ere, urrunetik ikusten da ez dela hala eta kortsarioek usuegi erasotzen dute.

Armamentu horrek ondoko helburuak ditu:

1. Itsasontziak prestatzea

Itsasontziak karenetzea eta haien kroskoa bikoiztea⁸. 12 egunez burutu operazioa (1760ko otsaila bukaera). Konpainiak kroskoa bikoizten du ere zizare barrenariak (molusko xilofagoak) Indiako ozeanoko ur beroetan eragin ditzaketen desmasiei aurre egiteko.

2. Lastatzea

Lasta:Itsaontzi baten zolan edo honen gilan finkatu pisuko materia zingo eta egonkortasun egokia segurtatzeko gisan.

3. Hornikuntza

Bela multzoa osatu eta ordezeko erreserba bat muntatu ⁹

Artilleria ¹⁰

Bornuko lanbide bakoitzari dagokion materiala¹¹. Hornitze hau zaila gertatu da tokian berean gauza guti aurkitzen ahal zelako.

3 bis.

Hastapeneko zama, lastarako mozkinak bai eta « mundruna gizona » (istinkatzeko ; mundruna, harrikatzen mundrunen destilatze hondarra, gizona: guria dena; ontziola obralekuak baziren Maurizion).

4. Zuzkitzea

18 hilabeterako aurreikusi hornidurak: irina, bixkotxak, arnoak, idikia eta xerriki gazitua, bakailao gazitua, sardinak, babak, gatza, gasna, gurina, tipulak...; ura 4 hilabete eta erdiko kontsumorako; egurra sukalde eta ogi laberako; animale biziak (hegaztiak, ardiak) eta haien hazkurria (zuhaina, oloa eta artoa)

5. Eskifaia erreklutatu

Zeregin hau zaila bilakatu da Zazpi urteko gerlak sortu egoera politikoa eta frantses ontzidiaren giza baliabidek ahultzeko Royal Navyk eraman razzia politikaren ondorioz. Haien jardueretan ibiltzeko itsasontzi kortsarioek itsasoko jendeen biztanleak erreklutatzen zituzten ere. Horrela, Utile eta Adourek eskifaia erreklutatze eremua biziki mugatua gelditu da. Arazoari aurre egiteko, bi ontzijabeek marinel atzerritarrak erreklutatu behar izan dituzte.

- Joseph Vernet, Baionako lehen ikuspegia Zitadelako maldaren erdialdetik, 1761, Olio margolana, Marinako Museoa

- Baionako ikuspegiak, Boufflers ibilbidetik hartua, Mousserolles atetik hurbil eta zitadelako maldaren erdialdetan (Joseph Vernet-ik hartua, 1761), estanpak, Charles Nicolas Cochin eta Jacques Philippe Lebas, 1964, Baionako Euskal Museoa.

- 800 upel zinez eraman dezakeen filibote baten planoak (Utile bezalako edukiahala, honen planoak ez dira atxikiak izan) Pierre Forfait-ek marraztu eta izenpetu Normanderen plano tipoa.

- San Carlos fregataren maketa, Gordailua. Ondare bildumen zentroa, Gipuzkoako Foru Aldundia.

- Indietako Konpainiako beste filibote bateko zanbrotua

- Massiac, Indietako Konpainiako 24 kanoiko filibotearen zama aurkezten duen erdi-krosko maketa

- Jean-Joseph Laborde, Baionako ontzijabearen maketa

- Utile eta Adour-en armamentu txostena

- Utileri zuzendu zama Lorientetik Baionaraino garraiatzeko administratibo eta aduana urrtas desberdinak segitzeko Frieslandeko « Acquis à caution » dokumentua

⁸ Kroskoa mundrunez estalia da eta tela edo paperezko tela batez estalia eta ondotik zurezko taula batzuk itzatuak.

⁹ 6 hornitzaile 170 telazko zati hornitzeko

¹⁰ 28 kanoi, 2 harri jaurtikatzaile, 60 eskopeta, 30 pistola, 40 sabre, 40 arma aizkora

¹¹ Eskifaia maisua, belagilea, pilotoa, arma kapitaina, armazaina, maiasturua, dupagile, omoniera, idazlea... eta abarren lanabesak

4. Bidaia Port-Louis-erantz

1760ko maiatzaren 1ean, bi itsasontziak Baionatik jaigutzen dira, mare handiari esker Aturriko barra iragaiten dute ¹² eta Bizkaiko Golkoko babeslekua den Pasaiaiko ainguratokian, Espainian, igurikatuko dute¹³. Baina diziplina arazoak berehala sortzen dira bi itsasontzietan. Onena litzateke ahal bezain fite abiatzea baina kontrako haizeek eta ingeles ontziek itsasoratzea gibelatzen dute. Desertzio mugimendu bat sortzen da eskufaiaren artean. Marinel askok ihes egiten dute, ordena zaintzeko Konpainiak igorri tropak hor badira ere.

Bi ontzijabeek, ofizierrek lagundurik, 6 hilabete beharko dituzte egoera honi amaiera emateko, besteak beste prima batzuk onartuz marinelei, bornuan egon daitezzen.

Lehen bait lehen itsasoratu behar dute sasoia aitzinatua izanik aro txarra saihestu behar baita.

1760ko azaroaren 17an, bi filiboteek itsasoa hartzen dute Frantziako uhartera buruz ¹⁴ Port-Louiseraingo joateko. Garai hartan Konpainiak kudeatzen ditu Maskareinak (Frantziako uhartea, Bourbon uhartea (Réunion 1793az geroz) eta Rodrigue gisako uhartexka batzuk) ¹⁵.

Bidaia 5 hilabete inguru iraunen du, trabarik eta osasun arloko arazorik gabe. Haien bidea:

- . Finistère lurmuturraren aitzinetik itsas zabalean pasatzen dira

- . Madèrera buruz joaten dira

- . Kanariak (haien bidea zuzentzen dute Burdinezko uhartearen meridianoaren arabera)

- . Cabo Verdeko uharteak: ura eta janari freskoa San Yago edo Mayon (Maio) hartzen dute

- . Urtarrila hastapena: ekuatorea gurutzatzen dute¹⁶

- . Esperantza Oneko Lurmuturra iragaiten dute eta Hego Afrikako itsas hegiz hegi aski urrundik ibiltzen dira kostako korranteetatik saihesteko eta ekialdera buruz joaten, aldeko haizeen bila ibiltzeko, Frantziako uhartera hego-ekialdetik heltzeko gisan.

5 hilebete baino pixkat gutiago iragan ondoren, 1761eko apirilaren 12an, Utilek aingura Port-Louisen egozten du.

Ba daiteke Adour aste bat ondotik heltzea Port-Louisera.

- Bizkaiako maparen erreprodukzioa, Pasaiaiko portua

- Itsasontzien ibilbideen mapa

- Frantziako uhartearen jatorrizko mapa (de Choiseul dukeak manatu mapa eta Jacques Nicolas Bellin, Marinako kartografoa eta ingeniariak marraztua, 1763an argitaratua)

¹² Aturriko barra: ibiaiko urek itsasoko sagailoaren kontra jotzen dute, talka horrek beraz, marearen goratasuna, ibaiaren emaria eta haizearen arabera indarra duen apar zirimola sortzen du.

¹³ Bizkaian kokatua, Hondarribia eta Donostia artean.

¹⁴ Frantziako uhartea: Maurizio uhartea, 1810an/ Parisko Ituna kari hartu izena, Britainia Handiari itzulia.

¹⁵ 4 urte Zazpi Urteko gerla bukatu ondoren, Konpainiak faillita eginen du eta administrazioa errege boterearen esku egonen da.

¹⁶ « Pot au noir » zeharkatu dute: ekuatoretik hurbil kokatu zonaldea. Bertan bat egiten dute tropiketarik etorri alisioek (ekialdetik mendebaldera buruz ufatzen duten haizeak). Meteo oso ezezagokorrek den leku horretan (denbora gutitan lasaitasun osoko egoera batetik indar eta norabide aldakorrek haizeetara eta ekaitza izugarri bortitzera pasa baitaiteke) kumuloninboak usu osatzen dira. Ingude forma duten garaiera handiko hodei biziki lodi horiek, biziki beltzak hasieran, ekaitza bortitzak sortzen dituzte. ZCIT, zone de convergence intertropicale (tropika arteko bateratze zonaldea) deitzen zaio ere.

5. Bidaia Madagaskarerantz

Antoine-Marie Desforgues-Boucher Maskareinak koloniako gobernadore nagusiak¹⁷, misio bat ematen dio Utileko kapitainari: Madagaskarrera bidaltzen du bizigailuak erostera (irrisa, idikia, etab) gosete bat hedatu baita aitzineko neguan; ingelesen blokeo baten beldur dira. Adour Frantziara buruz itsasoratzen da 1761eko irailan.

Garai hartan egiten ohi ez zen bezala, kapitainari galdegiten zaio esklaborik ez ekartzea, errege eskuadra eskasean, ingeles Navyren blokeo baten beldurra bada eta, ezin baita hain beste jende hazten ahal, gosetea pairatzen baitu koloniak¹⁸. Hirugarren zergatia daiteke Frantziako uharteko gobernadoreak Mozanbiketik etorri Jésus Maria José esklabo tratulari itsasontzia igurikatzen duela.

Trafiko hau debekatua da (itsasontzi arrotza delako / Portugaldarrekin eraman legez kanpoko trafikoa da) baina duda izpirik gabe Frantziako uhartean diren Konpainiako ordezkariak eta bertako gobernadoreak antolatutakoa da. Esklaboak merkeago erosten dituzte Mozanbiken Madagaskaren baino. Esklabo kargamendua Port-Louisen uztailaren 6an ekarria da, erran nahi baita 10 egun Utile abiatu ondotik.

1761eko ekainaren 27an, Utile Port-Louisetik abiatzen da Madagaskarreko Foulpointera joateko. Arabiar musulman, Portugaldar, Holandar, Ingeles, Frantziar salerosleak maiatza eta azaroa artean ibiltzen dira gehienik Madagaskaren, 18. mendearen erdi hartan, austral udatik kanpo ziklonoak saihesteko. Geldialdi, hornikuntza (ura eta janari freskoak) eta merkataritza lekua da, tratularitza leku bat, salgaiak herri batetik ekartzeko beste batera garraiatzeko operazioak burutzeko lekua.

Foulpointe Madagaskartar merkataritza faktoretako bat da. Ekialdeko kostan kokaturik, faktoria hau itsasontzietarako helgarria da koral hesi batek babesten duelako¹⁹. Trukatu salgaien artean, esklaboek diru anitz sortzen dute. Konpainiak tratularitza postu bat irekitzen du bertan²⁰ (zentzu zabalean) 1756an²¹. Tokian berean kapitainak Konpainiako solaskide bat badu (Konpainiako tratularitza burua) eta honek irrisa²², idiak²³ eta esklaboak hornituko dizkio.

Nahiz eta debekatua zaion, kapitainak iruzur eginez, 160 madagaskartar esklabo inguru erosten ditu. Segur da esklabo iruzur hori eta horretatik aterako lukeen etekinaren bitartez gizarte mailan goititzen bilatzen duela.

10

¹⁷ Kolonia administrazioa: gobernadore nagusi bat (Frantziako uhartean bizi dena) eta bi kontseilu nagusiren agindupean (bata St-Denis-en eta bestea Port-Louisen); botere zibilak (merkataritza, polizia, justizia) eta militarrek (bere tropa propioak edukituz) dituzte.

¹⁸ 1760ko abenduaren 16ko gobernadorearen gutuna: « gosetea da uhartean, beltzak gosez hiltzen dira etxebizitzetan; herriak sufritzen du eta sekulako dirutza xahutzen dugu bizirauteko. »

¹⁹ Barchois (barratxoa): Indiako ozeanoan, ur-arraseko koral uharri batek babestu arrada.

²⁰ Tratularitza Madagaskaren: 10. mendean mendebaldeko kostan plantatu Arabiar-musulmanoen eskutik; 16. mendetik goiti, Portugaldarrak entseatzen dira Arabiar-musulmanoen parean plantatzea, baina ez dute kausitzen; 16. Mendearen bukaeratik goiti, Holandarrak gehiago ibiltzen dira mendebaldeko kostan eta tratularitzan jarduten dute 18. mendearen bukaera arte; 17. mendetik goiti, Frantsesak ekialdeko itsas-hegian dabilta; Frantsesak tratularitza postuak sortzen dituzte ekialdeko itsas-hegian: Antongil eta Foulpointeko badia, Fénérive, Sainte-Marie, Mananara, Angontsy eta Mahambo.

²¹ 1800 arte ibiliko den tratularitza, merkataritza postua.

²² Maiatzetik azaroa hastapena arte, itsasontziak hornitzera datoz eta ekialdeko kostako gune hezeetako irris ekoizpen soberakina erosten dute.

²³ Utilerako, ez zutik garraiatuak, itsasontzia ez baita kabala garraiorako antolatua. Kabalak hiltzea, haragia gazitzea eta larruak tokian berean onteza erabakitzen dute. Sasoi guziz, 4 eta 6 000, eta batzuetan 11 000 arteko buru dira Foulpointen tratatuak.

Kapitainak klandestinoki ontziraten ditu. Utile ez da esklabo beltz tratulari ontzia baina bai garraio itsasontzi klasikoa. Eskifaiako gizonak zigortzeko burdinak bakarrik egon daitezke. Gatibuak orduan kalan zerratuak dira. Menturazko matxinadarik gerta ez dadin, gau guziz, kapitainak agintzen du kalako taulak itzatuak izan daitezen. Horrek erakusten du ez daitekeela lehen aldia kapitaina horrelako trafikoan jardutea.

Haren lehen ontziratzeak Konpainiako esklabo beltz tratulari ontzietan gertatzen dira. 1761eko uztailaren 22an, Utile ofizialki abiatzen da Frantziako uharterantz. Hamar egun berntago, 1761eko uztailaren 31n, 22:30etan, Utile Hondarrezko uhartean hondoratzen da. Usaiako itsas bideetatik bazterturik dagoen uhartexka hau Madagaskartik 500 bat km-tan eta Frantziako uhartetik 400 bat km-tan kokatua da.

- Foulpointeko planoaren erreprodukzioa (1747ko ingeles mapa, non agertzen diren lau itsasontzi Foulpointeko barachois, uharriak babestu ur gunea, iragaiten. Tratularitza burua eta bere soldadu tropa ttipia bizi zen hesia, hespila non kokatuak diren adierazten du. Bertan atxikitzen zituzten tratularitzako salgaiak eta esklaboak, beltz tratulari ontzi bat noiz pasatuko zen igurikatuz).

- esklabo burdinak.



Garai hartako mapen artean izan daitezkeen desberdintasunak erakusten dituzten Indiako ozeanoko mapak gainezarriak. Berdez, J. Thorton (1669-1701) ingelesak egin mapa, horiz P. Gros (1615-1675) holandarrak egina eta gorriz Marinako mapa, plano eta liburuxken biltegiak 1739an egin ekialdeko ozeanoa edo Indietako itsasoko mapa ttipia. BNF – © E. Renucci

6. Hondoratzea

Kéraudic-en kontakizunaren arabera (familiari egina eta ez Marinari zuzendu kontakizun ofiziala), ez ofizialki, Utilek Rodirgueseko bidea hartu zuen bertan gatibuak diskretuki uzteko, bide ofizialetik iparraldeago zen batetik ibiltzeko, ekialdeko norabidea hartuz. Usaiaz kanpoko bide horrek ²⁴ arrendurak sortzen ditu eskifaiaaren artean, eta preseski Hondarrezko uhartetik hurbil pasarazten ditu. Kapitainak bi mapa ditu bere esku: Mapen biltegiko lehen mapa bat ²⁵ 1739an argitaratua, usaiakoa; bigarren mapa bat 1753an argitaratua, fidagarriagoa ofizierrentzat. Bi mapa hauek Hondarrezko uhartea leku desberdinetan kokatzen dute.

Pilotoaren iritziaren kontra, kapitainak 1739ko mapa hautatzea erabakitzen du. Eguna igurikatzeko itsasontzia geldiarazteko erabakia hartzea bultzatuko zuten argibide desberdinak ez ditu kontutan hartu nahi izan. Segitu du gauaz ibiltzen neurri berezirik hartu gabe. Alta, mapa berrienak argi eta garbi dio eskifaia izutzen dituen zonalde batera buruz, Hondarrezko uhartera, bide egiten duela. Hondoratzea 22:30 inguru gertatzen da, Hondarrezko uharteko ipar-mendebaldean. Itsasontziak bi aldiz aztaltzen du uhartea babesten duen koral ordokia eta bertan gelditurik paratzen da, uhin lehergarrien erdian.

Barthélémy Castellan du Vernet lehen lotinenteak ditu erabakiak eta operazioen burua hartuko kapitainak ezin baititu bere zeregina eta misioak gehiago bere gain hartzen ahal.

Itsasontzia arintzeko eta hortik aterarazteko, lehen lotinenteak mastak mozteko eta gibeletako gainaldeko kanoiak ontzitik urera botarazteko agindua ematen du.

Arindurik, iparraldera buruz pixka bat desbideratzen da baina hondoraturik gelditzen da. Sagailoak inarrosirik, lema errotik kendua da, eta, pixkanaka kroskoa deslotzen da, egiturak hautsi eta zubiak lehertzen dira. Eskifaia, gauaren erdian, uhinen etengabeko erasoak jasaiten ditu. Batzuek lortzen dute itsas bazterrera heltzea. Madagaskartar gatibuak, matxinadarik gerta ez dadin arrats guziz bezala taula itzeztatuak zituzten kaletan blokatuak ziren.

Itsasontziko kroskoa desagitea igurikatu behar da salbatzeko.

Goizaldean, joan-etorri bat plantan ezarria da lurra eta itsasontzi hondakinaren artean. Bizirik direnak lurrera ekarriak dira, hala ere 18 marinela eta 72 Madagaskartar itorik hiltzen dira. 122 marinela eta 88 Madagaskartar bizirik ateratzen dira.

Goiz partean, kapitaina aurkitzen dute, begi galduak, itsasontziko botoilen erdian, erran nahi baita ofizierren komunitetan. Balditze estatu horretan gelditzen da.

- ekialdeko ozeanoa (edo Indiakoa) edo Indietako itsasoaren izari ttipiko mapa, 1739

- Hondarrezko uharetaren eskuz idatzi jatorrizko plano (seguru aski Utileko pilotoek marraztua Frantziako uhartera itzuli ondoren. Utileren hondakina eta hondoratuen egonaldiari lotu leku desberdinak begiztatzen ahal ditugu: oihaletxeak plantatuak izan diren lekua, putzua, aroztegia, labea, prama obralekua).

²⁴ Helmuga ofiziala: Garaian pilotoek latitudearen kalkulua baizik ez dute ongi menderatzen. Foulpointetik itsasoratzen delarik, bazter bat hegoaldera buruz tiratzen da eta Frantziako eta Bourbon uharteetako latitudean mantentzen da.

²⁵ 1720an, marinako mapa eta plano eta liburuxka biltegia sortua da itsas dokumentu guztiak bildumatzeko (itsas mapak itsas instrukzioak, nabigatze egunkariak edo bornuko egunkariak). Jacques-Nicolas Bellin kartografoak zuzendu zerbitzua. Misioak aldarazten ditu: mapak kontserbatzeko lekuaz gain, aski fite mapa sortze lekua bilakatzen da.

7. Hondarrezko uhartean bizirik iraun eta Xurien abiatzea

Castellan du Vernet lehen lotinenteak operazioak kudeatzen ditu lehorrean haien biziraupena antolatzeko.

Uhartea hutsa dela ohartu ondoren, berebizikoa da ura atzematea. Talde bat izendatzen du putzu bat zilatzeke uhartearen hegoaldean, baina ez dute kausitzen, urik ez. Igurikatzeko, itsasontzi hondakinetik hartu arno upelekin egarria ezitzen dute Frantsesek. Madagaskartarrek putzu bat zilatzea igurikatu behar dute. Anartean, kanpaleku bat eraiki behar da. belak eta banderak erabiltzen dituzte oihaletxeak eraikitzeke: bata ofizierak eta berreskurartu bizigailuak aterpetzeko, eta oihaletxe ttipi kopuru handia eskifaia eta « Beltzak » hartzeko.

Marinelek bizigailuak baina ere bornuko materiala, itsasontziko porroskak etab. berreskuratzen dituzte. Berreskuragarria den guzia biltzen dute, dena baliotsua da. Edo uhinek ekartzen dute, edo, itsasoa bera delarik, gizonek zuzenki itsasontzi hondakinean biltzen dituzte. Ura atzemateko entsegu berria, bigarren putzu bat zilatua da ekialdeago. « Esnea bezalako likore xuri eta lodia » bezala deskribatu ur gatzduna aterako da bertatik.

Hiru eguneko pribazioen ondotik, gisa horretan hiltzen dira 28 Madagaskartar. Hilik ez eskifaiaeren artean. 180 pertsona baino pixkat gehiagok bizirik iraute dute.

Castellan du Vernet eta aitzindaritzaren gorenak, eskifaia antolatzen entseatzeko dira. Ez du honek lanari biziki tirarik, hogoi bat gizonez aparte. Gatibuek, bizirik irauteko gogo azkar batek animaturik, eskifaiaekin lan egiten dute ontzixka bat eraikitzeke, Madagaskarrera joateko asmoarekin.

Beharrezkoa izan daitekeen guzia berrerabiliz eta fabrikatuz (ik. aroztegia). Prama bat²⁶ eraikitzen dute, erran nahi baita hiru gilako zola laueko ontzia. Castellanekek 15 metro luzerako ontzixka baten planoak marraztu zituen, bizirik atera ziren guziak garraiatzeko. Baina zureria pieza aski luzerik ez izanki, ontziaren neurriak ttipitzen ditu. Ez da aski handia denak sarrarazteke.

Madagaskartar gatibuak bertan uztea erabakitzen du.

1761eko irailaren 27an, 122 marinela uhartetik joaten dira Madagaskartar gatibuei hitzemanen haien bila itzuliko zirela, 3 hilabeteko bizigailuak eta, itsasontzi batekin harremanetan sartuz gero, Castellanekek berak izenpetu dokumentu bat utziz.

Eta, 4 egun berantago, Madagaskarrera heltzen dira. 1761eko urriaren 26an, bizirik atera den eskifaia Silhouette, Konpainiako itsasontzira igotzen da Frantziako uhartera joateke. Hilabete bat berantago helduko da. 12 pertsona hil dira zeharkatze horretan, hauen artean Lafargue kapitaina Madagaskaren bildu sukarren ondorioz nagusiki ²⁷.

Desforgues-Boucher, Maskareinak koloniako gobernadore nagusiak orduan gutun bat zuzentzen dio Konpainiari, Castellan du Vernet ofizieraren « ezohiko gaitasuna » azpimarratuz eta Lafargue kapitainari buruz « ... Lafargue jauna hil da zeharkatze horretan eta ongi egin du, haren tematzeak eta jarrera okerrak eragin duelako itsasontzi horren galera... ».

²⁶ Prama bat: itsasontzi baten osagarri gisa erabili ontzixka, txalupa, battelekua.


²⁷ Austral uda garaian, malariak eta sukarrek Madagaskar jotzen dute. Konpainiak langile koupuru ttipia uzten du bertan.

Bizirik iraun duten eskufaiako gizonak ere idatzizko lekukotasun bat utzi dute, Castellan du Vernet haien salbatzailea omentzeko. Gobernadoreak uko egiten dio Madagaskartarren bila joateko itsasontzi bat igortzeari, « afera fite itotzeko », Castellanek abandonatu hondoratuei eman hitza janez.

Asaldura pizten du erabaki horrek baina berantago baizik ez da jakinarazia izanen. Abandonatutakoak (60 Madagaskartar esklabo), eta, ildo beretik, iruzur laidogarria eta Portugalдарekin burutu lege kanpoko trafikoa pixkanaka ahanziak izan dira. Horrela denbora iragan da 15 urte luzez... hauetarik 8 salbatuak izan arte 1776an!

Idatzizko aztarnarik ez izanki horrelako baldintza izugarrietan 15 urtez egon direnei buruzko argibideak emateko, hainbat galdera trenkatu gabe gelditzen ziren. Zerekin elikatu ziren? Nola aurre egin zieten elementuei (etengabeko ekaitzak, ziklonoak, haizea eta sagailoa)? Zertarik hil ziren? Zoin ziren haien ehorzketa erritoak? Zoin neurriraino lagungarri izan zuten itsasontzi hondakina?

Miaketak burutuz besterik ez zen galdera hauetara erantzuten ahal. Objektu arkeologikoei esker jakin ahal izan dugu nolakoa zen gizon eta emazte hauen eguneroko bizia eta etengabe egokitze gaitasuna.



Hondarrezko uhartearen eskuz idatzi jatorrizko planoak (seguru aski Uteko pilotoei marraztua Frantziako uhartera itzuli ondoren. Itsasontziaren hondoratze lekua eta hondoratuen bizi gune desberdinen kokapena: oihaleak plantatuak izan diren lekua (T), aroztokia eta labe bat ezarriak izan diren lekua, eta, azkenik, Providenceren eraikitze eta itsasoratze eremua (B).

© Archives nationales.

- Eskuz idatzi uhartearen planoaren erreproduktzioa

- de Kéraudicen kontakizuna

ERAKUSKETAREN BIGARREN PARTEA

Horrela, Tromelinen 2006 eta 2013 artean burutuak izan diren 4 miaketa kanpainei eskainia zaie.

2006 > ur azpiko miaketa kanpaina, Max Guérout, GRAN

120 murgiltzeren ondotik, agertu da ur azpiko guneko plano bat burutu eta Utileren kroskoak eta bela-sokek elementuen indarrari eta zolen naturari ez dietela iharduki. Gainera, osagai parrasta bat berriz erabili dute hondoratuek Providence eraikitzeko.

Urpeko miaketa hauei esker berun, burdin, brontzezko hondakin « pisuak » lokalizatuak izan dira (aingurak, kanoiak, erreka uharri lodiez osatu harrizko lasta, eta brontzezko ezkila lodi baten porroskak, eskopetako balak).

2008, 2010 eta 2013an > lurreko miaketak, Max Guérout eta Thomas Romon (INRAP) madagaskartarrak bizirik irauteko lagungarri izan dutena azalarazten dute.

- ezkila porroskak

- kardailudun bola muturrak eta trabuko balak

1. Jan eta edan

Bornuko idazleak adierazten du « goleta beltz » batzuen arroltzeak kontsumituak direla. Véronique Laroulandie, arkeozoologoak, animalien hondarrak ikertu ditu azken indusketa kanpaina eta esklabo ahanztien jan-moldeak horrela zehaztu ahal izan ditugu. Gehien bat xori eta txenada ilunez ²⁸ osatua zen. Espezie honek denbora gehien airean pasatzen du, ozeanoen gainean, sekula nonbait pausatu gabe. Hala ere uhartean egoten zen ²⁹ apirila eta iraila arteko habia egiteko garaian, edo zonalde horretan usu gertatzen diren ekaitzek beharturik. Ehundaka milakako indibiduo osatuak izaten ahal dira txenada koloniak, eme bakoitzak zoruan berean 1, 2 edo 3 arroltze errunez, hauen bilketa eta harrapaketa errazteko Madagaskartarrei.

Atzeman hezurrek erakusten dute hegaleen muturra mozten zietela egosi aitzin, seguru aski lumak errekupeatzeko, hauek erabiltzen baitzituzten hondoratuek gerripekoak egiteko. Baidrudike zenbat aste 1776ko salbamendua aitzin, 7 hondoratuek itsasoratu almadia, luma espartzatuzko belez osatua zela. Xori hezur hauez gain, dortoka berde batzuen hezurdurak ere argitara ekarri dituzte ekipek. Heldutasun adinean belarjale diren abere hauen gantzak berde kolorea hartzen du eta hortik dator haien izena.

Distantzia handiak kurritzen dituzte itsas azpiko jateko belardien artetik eta 100 arroltze arte eduki ditzakeen ohanzte batean gauaz erruteko ³⁰. Froga idatzi edo arkeologikorik gabe hala ere, pentsa daiteke Madagaskartarrek dortoka arroltzeak jaten zituztela.

Hemen aurkeztu kuskuaeren eskuineko erdiari dagokion dortokaten kroskoan ildoxkak ageri dira kanpoko aldean adierazteko animalia bizkarraren gainean errestaka eramana izan dela hondartzatik. Barneko aldean buxeria markak ageri dira. Horrek adierazten du animaliaaren haragia hartua izan zela egosia izan aitzin. Hala ere, arkeologiak ez du erakutsi ahal izan dortoka horien kontsumitzeari buruzko usaiako arauak errespetatuak izan direnez. Gizakiek besterik ez zuten haragia ebaki eta mozteko gaitasuna.

Molde berean, ezin zen dortoka haragia erre. Seguruenik beraz, egosia izan da. Madagaskartar irakaspen oso kodifikatuak segitu dituzte ote? edo imajina genezake arbasoen debeku hauek urratu dituztela bizirik irauteko.

Arroltzeak eta dortokak gehitu zaizkie xori hauei, bai eta, nahiz eta neurri apalagoan, maskordun eta arrainak (caranxak gehienik eta beste hamar bat familiakoak) ³¹.

Proportzio apal hau hainbat moldez azal daiteke. Madagaskartar hauetako batzuk uharte erdiko goi-ordokietakoak ziren, batere ez usatuak itsasoa eta honen ingurumenari beraz. Gainera, gehienetan, klimaren baldintzengatik zaila zen edota ezinezkoa itsasoratzea arrantzan jarduteko.

²⁸ Izaria: 45 cm, Hedadura: 82tik 94 cm-ra, Pisua: 120 eta 285 g artean.

²⁹ Espezie honek ez du gehiago Tromelinen habia egiten edo hondoratuen presentziak ahuldurik, edo ziklonoek lekuz aldarazirik, edo gaur egun bertan dauden espezieen plantatze/lehiaketarengatik: sula dactylara eta zanka hankagorriak.

³⁰ Dortoka batek 6 aldiz errutu dezake sasoika (orohar 6 x 100 arroltze). Urte osoan erruten du baina gehiago egiten du azaroa eta martxoa artean (austral uda). Arroltzeen txitatzeak, tenperaturaren arabera 45 eta 70 egun artean irauten du. Dortoka berdea, hondartzetara erruteko bakarrik etortzen den itsas dortoka bakarra da, baina eguzkitan berotzeko ere.

³¹ Balistak, acanthuridae (arrain-kirurgialariak, lujtanus vivanusak)

Estazio meteorologikoa plantatzean, 1954an, naturalista batek getozka badagoela adierazten du, zonalde beroetako landare apal bat. Honen hostoak entsaladan jaten dira. Imajinatzen ahal da Madagaskartarrek erabili dutela noizbehinka baizik ez bada hazten ere. Baiezta dezakegu ere pomoea pes-caprae aurkitzen zela bizitegietatik hurbil 18. mendean. Aihen herrestari hau erabilia izaten ahal zen inguratze arrantzan jarduteko balio zuten sare mota batzuk egiteko. Hala egin ote dute hondoratuek?

Sendabelarrak izateaz gain, iduri duke animalien elikatzeko erabiliak zirela. Pentsa genezake beraz hala ere Madagaskartarrek kontsumitu dutela?

Azken finean, ekipek zehaztu ahal izan dute nagusiki haragia jaten zutela eta behar bada uhartean aurkitzen ziren landare bakanak lagun. Baina nola jaten zituzten elikagai hauek, gordinik ala egosirik?

- Txenada ilun hezurak
- Txenada lastoztatua
- Dortoka berde hondarrak eta dortoka lastoztatua

Kéraudic-ek kontatutakoaren arabera labe bat eraikia izan da 1761eko agorrilaren 15ean, erran nahi baita bi aste hondoratu ondotik, itsasontziko labea osatzen zuten adreilu erregogorrek berreskutaturik. Ogia egiteko baliatua da lehenik eta gero Providencen kargatzeko (itsasoko) bixkotxak prestatzeko. Itsasontzi hondakinetik salbatu 22 irin torrilekin egina izan da hori guzia. Labe hau biziki fite lokailzatua izan da 2006ko kanpaina burutzea, eskuz idatzi planoari esker eta gehien bat Tromelinen beti aurkitzen diren dortoka berdeei esker, hauek ohantzea zilatzean aurkeztu diren adreilu ugari lurretik aterarazi zituztelako. 40 cm gaur egungo zoruaren azpian, ekipek labearen oinarria argira ekarri dute, 2m x 2m-ko oinarria. Koral kiskaliz sortu gisu mortero batek atxikitzen zituen koral blokez osatua.

Altxatzeaz, 8 adreilu zati besterik ez ziren gelditzen. Hortik hurbil, botakin eremu bat aurkitua izan da, errauts geruza eta kontsumitu abere hondar ugarirekin. Gorago plantatu zirelarik abandonatu zuketan labea Madagaskartarrek. Eguneroko biziko objektuak parrastaka aurkituak izan dira.

- Adreilu erregogorrek
- Lanabes tipiak eta ontzileria (Madagaskartarrek itsasontzi honakinetik hartu, atxiki eta/edo eraldatu dituzte
- Hiruzangokoa, bertzuna, pizgailua, egur ikatza eta kozinataula (Madagaskartarrek sua atxiki eta erabili dute bizirik iraun duten 15 urteetan)
- Uhandre eskola (Burruntzali gisa erabilia seguru aski)
- Berunezko garbiontzia (euri urak errekupeatzeko eta/edo putzuko atxikitzeko baliatu duzketenak)
- Kobrezko koilarak

2. Fabrikatu eta konpondu

Bizirik iraun duten 15 urteetan, esklaboek lehen beharrei erantzuten jakin izan dute haien esku gelditu guti hura eraldatuz, berriz erabiliz, konponduz.

- Tresnak eta lanabesak: zorrozgailu gisa erabili lasta harria, haien jatorrizko erabileratik desbideratu burdinezko objektuak, garbiontziak fabrikatzeko berunezko hostoak, koilarak fabrikatzeko, zenbait lanabes fabrikatzeko kobrezko hostoak.



Hondoratuek moldatu eta konpondu kobrezko ontzia.
© Lise Saussus

3. Aterpetu

Atzeman objektu gehienak, uhartearen gaineko aldean dagoen bizitegi zonalde batean aurkituak izan dira. Alabaina, hondoratu eta gero hondartzan plantatu behin-behineko kanpalekuak abandonatzen dituzte Madagaskartarrek Frantsesak joan ondoren. Elementuez babestu behar dute. Seguraz ere urakan batek uhartea jo duke Frantsesak joan ondoren. Bizitegi eremuaren okupazio kronologia zehaztu ahal izan da jalkin geruzak aztertu ondotik. Beheretik gora ikus daitezke, mozte stratigrafiko batean:

- zorua okupazioa aitzin
- aterpe arinez egin lehen okupazioa (ziur aski Utileko belen hondarrei esker muntatu oihaletxeak. Zoruan abere kontsumitu batzuen hezurak, errautsa eta objektu ttipiak atzemanak dira (besteak beste itzeak)
- zenbait zentimetroko itsas hondar maila bat, erakusteko intentsitate ertaineko klima gertaldi bat izan dela eta ondorioz, Madagaskartarrek bizitegi azkarragoak eraiki dituztela.
- gaineko geruza, gai gogorrez egin eraikinen egituren oinarria.

Azken hiru miaketa kanpainen mailaka, 12 eraikinez osatu 300 m² inguruko herrixka zirkular bat argitara ekarri dute. Emaiza ez da hala ere arrunt osoa estazio meteorologikoa zati batean Madagaskartar etxebizitzaren lekuan eraikia baita³².

Hargatik jakin izan dute 15 urteko denbora arkeologiko oso laburrean, bilakaera bat eta leku aldatze bat zehazten, bizitegi eremu horretan:

- lehen eraikinak Ekialdean eraikiak dira eta ondotik abandonatuak klima gertaldi baten ondorioz hain segur
 - leku aldatzea mendebalderantz plaza zentral batera irekitzen zaizkien eraikinekin, hauek ere abandonatuak
 - leku aldatzea mendebalderantz berriz, bigarren okupazioko eraikinen zati bat estaltzen dituen murraskoz lodiago batek (3,70m) babesturik. Murraskonek erakusten du ere elementuen bortizkeria. Gela hauek ziren okupatuak 1776ko salbamendua gertatu delarik, objektu gehienak zonalde horretan atzemanak izan direlako.
1. eraikina argiki sukalde gisa identifikatua izan da, sukaldeko lanabes ugari eta supazterreko errauts guinea bertan izanki. Bigarren okupazioko eraikinak ateleria gisa erabiliak ziren ingudeak atzemanak izan baitira bertan (maketan 5. eraikinean egon 5 itzeren bidez materializaturik).

Komunitate solidario baten irudia ematen duen herrixka gisako bateratze hau, ordu arte Madagaskarren praktikatu familia etxebizitza indibidualen antolaketaren kontrakoa da eta erakusten du hondoratuek egokitze praktiko eta psikologiko gaitasun handia zutela. Beste elementu batzuek frogatzen dute, bizirik irauteko borrokatuz, Madagaskaren biziki markatuak ziren erlisione-zko sinesmen eta aginduen gaintik pasatu direla:

- eraikinak haize azpira orientatuak dira Ekialdetik Mendebaldera ufatzen duten alisio bortitzen kontrako egiazko babesa segurtatzeko gisan. Alta, madagaskartar tradizioaren arabera, Ipar-Hego orientazioa duen etxebizitza eraiki behar da, besteak beste, eta ez da hala gertatzen 1 eta 2. eraikinekin adibidez. Atea Mendebalde/Hego-mendebaldera orientatua izan behar da, eta ez da hala gertatzen zelula guziekin.

³² Lehen instalazioak suntsitu zituen ziklono bat 1956an gertatu ondotik, Météo Francek erdi lurperatu 2 eraikin altzarazten ditu. Hauek ahal bezain bat 18. mendeko murraren hondakinen gainean bermatzen dira, eraikitzeen harriak estaziorako berriz erabiliak direlarik.

Eskualde batzuetan, ekialdean koka dezakeena belagile bilaka daiteke; ekialdean bere emaztea hiltzen ikusiko luke; eta iparraldean, aire-gaiztoa erakar dezake. Tromelinen ingurumen baldintzek diote tradizioari gaina hartu.


→ Erabili ekaien izarera bera beste adibide ona da.

Kanpoko murrua, usu 1,5 metro baino lodiagoak dituzten harri idorrezko hamabi bat zelula ttipiz osatua da herrixka.

Barneko murruek kasik beti eredu berdina erakusten dute³³: murruen oinarria xutik pausatuak diren hondar hareharri xaflaz³⁴ osatua da. Oinarri horretan, bata bestearen gainean pausatuak diren koral bloke ttipiakoak etzanik pausatuak dira, mortero/lokarririk gabe. Harriaren erabilpen hau, madagaskartar tradizioaren aurka doa erabat.

Bizidunen bizitegia usaian ekai galkorrez eraikia da (egurra eta lur gordinezko adobe adreiluak) gizkiak ere hala baitira harria hilen hilobiak eraikitzeke atxikia delarik. Imagina genezake beraz harrizko etxe horien eraikitzeekin batera etorri galdekatze eta nahasmenduak handiak izan daitezkeela. Zelulak izari ttipikoak dira³⁵. Uhartean aurkitzen ziren ekaiekin teilatu bat eraikitzeak sortzen zituen arazoei lotua daiteke hain hertsia izatea. Zaila da ere etxebizitza hauen goratasun zuzena zehaztea gaineko partea ez baita aurkitua izan eta estazio meteorologikoko lehen eraikinen oinarri gisa erabilia izan baita 1954an.

- bizitegi eremuko maketa
- atzeman eraikinen planoak
- gune arkeologikoaren ikuspegi orokorra



Miaketen plano orokorra. © Thomas Romon, INRAP.



Argira ekarri eraikinen barneko espazioa ttipia bada ere, murruek metro bateko lodiera dute eta klimaren erasoei erresistentzia handia ekartzen diete. © J.-P. Rebeyrotte, GRAN

³³ Eraikuntza printzipioak beti berdinak badira ere, ohartzen gara zenbait aldaketa badirela zelula batetik bestera, eta hauek edo denboran bilakaera bat edo Madagaskarko leku desberdinetan edota ere Afrikan hartuak izan diren esklaboz osatu talde baten heterogeneitate bat adierazten dutela.

³⁴ Koral hauts, hondar eta ur metatzeko/konkrezioz osatu eta eguzkiak berotu betoi natural mota bat. Hondartzaz bazterrean errekupeztatzen da.

³⁵ (2,3 eta 2,7 m-ko luzetasuna eta 1,3 eta 2,4 m-ko zabalera).

4. Igurikatu, bizi sozial baten aztarnak?

Bizitegien eremuan arkeologoek arrunt utilitarioak ez diren objektu batzuk argira ekarri dituzte:

→ Madagaskarreraz « vangovango » deitu 2 eskumutur. 18. mendean Foulpointen jadanik atzematen ziren edergailu hauek beti badira gaur egun Madagaskaren. Gizonek eta emazteek janzten badituzte ere, hemen aurkeztuak direnen fineziak emazteek erabiliak zirela adieraz dezake. Erraten ohi da eskumutur hauek sakratuak eta babesleak direla baina ez dira berdinak leku geografikoen arabera. Aire-gaizto, krokodilo, itotze edo idi lapurren kontra babesa ekartzen dute ere.

Ez dugu neholako zantzurik atzeman errateko esklaboek soinean zituztela Utilen zirelarik edo uhartean fabrikatuak izan direla. Azken hipotesia horren arabera, esklabo batek arte otoitz edo trantzeei esker fabrikatzen duenean objektuari xarma babeslea emateko.

→ pikotx deskorapilatzaileei lotu orratzak. Gizon eta emazteen ile luzeen trezatzearen usaia atxikitzea ahalbidetzen dute³⁶. Hauek fabrikatzeak eta erabiltzeak aldi berean erakusten dute higieña zaindu nahi zutela hondoratuek bai eta arbasoen tradizio bat iraunarazi.

→ txanpon zilatu bat. 2013ko azken kanpainaren kari atzeman 10 reis-eko portugaldar pieza hau 1720 edo 1721ekoa da. Bi aldiz zilatua izanki, pentsa daiteke eskumutur baten apaintzeko erabilia izan dela. Espainol marinel batzuk Utilen baitziren, suposa genezake hauetariko bat pieza honen jabea zela.

→ kobrezko harizko 3 katetxo zati atzemanak izan dira 2013an. Haien aspektu irregularrak adierazten du eskuz fabrikatuak izan direla, uhartean seguruenik. Ez dakigu zertarako baliatuak ziren baina apaindurarako ziteken.

Obejktu guzi horiek erakus dezakete haien biziraupenerako eginbeharrak bete ondoren, Madagaskartarrek halako bizi sozial bat berriz abiatu zutela. Hala ere, objektu hauek, besteak beste eskumuturrak eta pikotx deskorapilatzaileak, karga espiritual azkarra daramate. Bizirik irauteko beharrezkoak dituzten talisman gerizatzaileak dira ere.

21

- Eskumuturrak, katetxoak

³⁶ Dolu seinalea zen ile motza ukaitea

³⁷ Itsasbazterreko lurretatik zetozen Madagaskartarrak, besteak beste Ekialdeko kostakoak, seguru aski, Ozeanoa ongi ezagutzen zutenak, uhartearen barneko sumendi goi-ordokietan hazi direnak ez bezala.

5. Tromelinen hil

Arkeologia lagungarri izan bada ere Madagaskartarren elikadura edo bizitegiei buruzko galdera askori erantzuteko, zerbait garrantzistu ez du argitu: hauen gehienen heriotza.

Gure esku ditugun iturri desberdinei jarraikiz, hirurogoi bat Beltz abandonatzen ditu frantses eskifaiak 1761eko irailaren 27an (badirudike hogoita hamar bat lehen bi hilabeteetan hil dela):

→ hauetariko 18 abiatzen dira ahal bezalako almadia batean ³⁷ 3 urte inguru itsasontzia hondoratu ondotik (bizirik atera diren emazteek kontaturik)

→ hauetariko 6 almadia batean abiatzen dira ere 1776ko uztailan, uhartean hondoratu itsasturiarekin.

Alta, 1776ko azaroaren 29an, 7 emazte eta 8 hilabateko haur bat besterik ez ditu salbatzen Dauphineko eskifaiak. Hogoita hamar bat Madagaskartar bederen hil da beraz Tromelinen Frantsesak joan ondoren. Zergatik ote? Hastapenean hil dira ala bukaeran? Zoin ehorzketa errito erabili dituzte? Galdera guzi hauei zizkieten ikerketa taldeek erantzun nahi.

Garai hartan Frantziako baina baita ere Madagaskarreko parktiken arabera, pentsa dezakegu hil ziren hondoratuak lurperatuak izan direla. Marrazoek zeregin bat izan badute ere hondoratzetan itorik hil zirenekiko, zaila da pentsatzea uhartean hil gizonak urera bota dituztela. Itsas joairek eta sagailoak nahi ala ez itsas hegira berriz ekarriko lituzkete. Alta bada, nahiz eta zundaketa eta miatze parrasta bat burutu 2006 eta 2013 artean, ez da hilobi bat ere aurkiturik izan.

Bi pertsona desberdiren hezur multzo besterik ez dira atzemanak izan, 2008an, bizitegi eremuan. Ez ziren hondoratuen presentziari dagokion maila arkeologikoan kokatzen, baina gorago, estazio meteorologikoaren lur metaren mailan. Suposa genezake beraz bi gorputz hauek molde anarkikoan lekuz aldatuak izan direla. Horrek erran nahi ote du gaur egungo estazioak hilobien eremua estaltzen duela?

22

Lehen eskeletoa sukaldearen gainean atzemanak izan da. Bigarrena 3. eraikinaren gainean atzemanak izan da. Nerabe handi bat zen, azkarra, mutiko bat dudarik gabe.

Bi gizabanako hauen ikerketa sakona ez da aski izan zehazki errateko zertaz hil diren, baina ez da heriotza aitzineko eskorbutu, eskasia edo anemia aztarnik agertzen.

Hala ere, deshidartazio edo desnutrizio bizi batek eragin heriotza bat-batekoa izanik, ez dute hezur lesiorik uzten, diganostiko bat egitea ezinezkoa bilakaraziz.

Gauza batek segurua dirudi: ez da kanibalismo gertaldirik izan uhartean. Ez da gizaki hezurrik supazterretik hurbil diren atzeman izan botakin zonaldeetan eta aurkitu bi eskeletoek ez dute mozketa edo egoste markarik agertzen.

- Eskeletoa

³⁷ Itsasbazterreko lurretatik zetozen Madagaskartarrak, besteak beste Ekialdeko kostakoak, seguru aski, Ozeanoa ongi ezagutzen zutenak, uhartearen barneko sumendi goi-ordokietan hazi direnak ez bezala.

6. Hondoratuen salbamendua

Hondoratuen kalbarioa 1776ko azaroaren 29an bukatu da. Hamabost urte horietan ohidurak eta, 1769an gertatu konpainiaren faillitaren ondorioz, errege kontrolpean gelditu uharteen administrazioa aladatu dira. 1772an, Castellaneek Konpainiako zuzendariak entzun nahi ez dituzten hondoratuen salbatzeko egin eskaerak Marinako ministroari zuzenduak izan zaizkio. Honek kasu gehiago egin die behar bada, 1775ean baizik ez du erabaki bizirik iraun dutenen sokorritzera joatea, Port-Louisera itsasontzi bat etorri delarik, hondoratu batzuk hondarrezko uhartean ikusiak izan zirela erranez.

Lehen salbamendu saiakera batek porrot egiten du Sauterellerekin 1775eko agorrilan, eta sagailoarengatik txalupa baten hondoratzearekin bukatzen da. Bi marineletako bat itsasontzira gherika itzultzen da bestea, uhartera hondoratuengana jotzera behartua delarik.

Ondoko urtean, uhartera hurbiltzeko bi porroten ondotik, itsasturia, desesperaturik, hiru gizon eta bi emazterekin entseatzen da Madagaskarrera joatea, gelditzen ziren Utileko puskekin eraiki almadia batean, honen belak xuri lumekin egina zelarik. Taldea itsasoan desagertzen da. Lau hilabete berantago, Jacques-Marie Lanuguy de Tromelin itsasontzi entseinariak manatu Dauphine korbata hondoratuak salbatzera igortzen du Frantziako uharteko gobernadoreak. Biharamunean, ofizierak lortzen du uhartera txalupaz heltzea eta, usaian arrantzarako erabili piroga batekin. Hiru orenez, zazpi emazte eta zortzi hilabeteko haur bat Dauphinen iganarazten ditu salbamendu lanez arduratzen den Lepage ofizierak.

Port-Louisera heltzean, emazteak ez dira esklabotasunaz libratuak, askerik utziak bakarrik. Bairaz erosiak izan baitira, administrazioak ez ditu esklabotzat hartzen. Zortzi hilabeteko haurra egun hartan berean bataiatua da, Jacques Moïse izena hartuz. Ama bortxaz Ève izendatua da eta amatxi Dauphine. Bizirik iraun dutenei Madagaskarrera eramatea proposatzen zaie. Ez dute onartzen. Maillart, uharteetako administrazio kudeatzaileak bere etxean aterpetzen ditu azkenean.

7. Desforgues-Boucher-i, bere garaikideek zuzendu kritikak

Frantziako Uharterako Bidaiaren eskuidatzian gelditu Bernardin de Saint Pierreren testua (1773) Frantziako uhartean egon delarik 1767-1768an, bertan hondoratzearen oroitapenak bizirik drau oraindik, Bernardin de Saint Pierre asaldatzan da Frantziako Uharterako Bidaiaren eskuidatzian, deusik ez baita egin bizirik iraun dutenen salbatzera joateko, itsasoz, zenbait egun eskasera besterik ez direlarik. Baina eskuidatzi honek ez du batere eraginik 1773an argitaratua izan delarik, idazleak pasarte hau kentzea erabaki du.

Abbé Raynal, Histoire des deux Indes (1772)

Esklabotasunaren aurkako borroka mugimenduak hasten dira agertzen 1770 hamarkadaren hastapenean. Haren obra entziklopedikoan, Raynal asaldatzan da: « Nori, zuek barbaroek, sinestaraziko diozue gizaki bat subirano baten jabegoa izan daitekeela; emazte bat, gizon baten jabegoa; esklabo bat, kolono baten jabegoa? ». Argitaratu orduko debekatua izanik ere, berantago, liburu honek arraksata lortu du mundu osoan.

Réflexions sur l'esclavage des nègres (1781) Condorcet

Esklabotasuna salatzeke lehen borroka horien ildotik, Condorcetek gertakariaren lehen kritika publikoa adierazten du, 1781ean "Réflexions sur l'esclavage" argitaratzen duelarik. Egiazki, Utileren hondoratzearen historia gehiago erabiltzen du erakusteko Xuriek ez dituztela Beltzak haien parekotzat hartzen, histori bera kontatzeko baino. Alabaina, 1788an bigarren aldikotz argitaratu Condorceten kontakizunak –idazlea Beltzen lagunen Sozietatean sartzen delarik– akats andana bat aurkitzen da, hala nola Sylphidek salbatu dituela eta Dauphinek, eta gobernadorearen ardura doi-doi aipatua dela. Egia erran, Joannis, konpainiako kapitaina ohiak Condorceti eman dizkion informazioak, Desforgues-Boucheren arrebak manipulatzan ditu, anaiaren eskaerari jarraikiz. Horrela, bere testuan, Condorcetek ez du komentariorik ekartzen hondoratuak ez salbatzeko gobernadoreak hartu erabakiari: « Orduan Frantziako uharteko gobernadorea zen M. des Forgesek, uko egin zion itsasontzi bat igortzeari, hartua izateko arriskuan izan zitekeelako. »

Voyage aux Indes et à Madagascar, Abbé Rochon

Gertakariaren kritika indartsuago bat agertzen da 1791n, Bernardin de Saint Pierrerekin batera uhartean zegoen Abbé Rochon marinako astronomoarekin. 1791n beraz, Rochonek orrialde bat baino gehiago eskaintzen dizkio hondoratzeari, Madagaskaren eta Ekialdeko Indietan egin bidaiari. Hondoratuak sokorritzea onartu ez duen gobernadorearen erabakia gogorki salatzen du. Rochonen sumindura zinezkoa ote da edo bakarrik oportunistoz josia, esklabotasunaren ankerkeriari buruz Mirabeauk 1790ean egin mintzaldiaren ondorioz pentsaerak aldatzen ari diren garai hartan? Erantzunik ez da, Rochon uhartean zegoen garaiari buruz lekuan berean burutu ikerketa batetik hartu dokumentu batek adierazten baitu Rochon berak bi esklabo erosten dituela.

The Life And Strange Adventures of Robinson Crusoe, Daniel Defoe

Utile hondoratu aitzin, Daniel Defoek 1719an, Juan Fernandez uhartean hondoratu Alexander Selkirk eskoziar marinaren historian oinarriturik, argitaratu Robinson Crusoe, hondoratzearen erreferentziazko kontakizuna da. Gertakari honek marinela ikaratzen ditu.

Géricault-en Méduse almediaren erreproduktzioa

1818an, Méduse hondoratu eta bi urte berantago, Alexandre Corréard ingeniariak eta Henri Savigny marinako kirurgilariak hamahiru egunez almedian pairatu duten kalbarioaren kontakizuna idazten dute. Erreferentzia zuzena egiten diote Utileren historiari, azpimarratuz ezin onartuzkoa dela beste hondoratu batzuk abandonatzea haien salbatzeko deus ez entseatu gabe, oihartzuna horrela emanez Rochon apaizaren kritikari. Géricaulten margolanak iduriz gertakizunari erreferentzia egiten dio, beltz bat, Hondarrezko uhartea oroitaraz dezakeen almediaren puntan hupaturik, itxaropena eta etsipena uztartzen dituen multzo batean.

Bisita gida hau molde zabalean oinarritzen da Nanteseko historia museoko ekipak burutu lanean.

PEDAGOGIKOKI BALIATZEKO

Erreferentziak programetan

2. zikloa

Pertsona eta herritarraren formakuntza

Moral, herritar eta sozial balioetara heltzea egoera konkretu batzuetatik, irakaskuntza guzietako testu eta obra desberdinetatik abiatuz burutzen da. (...) Moral dilema sinple batzuei, aurreiritzi adibide batzuei, justizia eta bidegabekeriari buruzko gogoetei aurre egin beharrez, ikaslea jujamendu moralaren kultura bati usatua zaio: eztabaida, argudiatzea, galdeketa arrazoinkatuaren bidez, ikasleak ikuspuntu pertsonala adierazteko, bere sentipenak, bere iritziak adierazteko, gogoeta kritiko batera heltzeko, jujamenduak adierazi eta justifikatzeko gaitasuna lortzen du. Haren interes partikularra interes orokorretik bereizten ikasten du.

Jakintza eta gaitasun eta kultura Oinarri bateratuko 3. eremua (2015eko apirilaren 23ko BO)

Mundua galdekatu

→ Espazioan kokatu.

Planoak irakurri, kartetan bere burua kokatu. Ikusi espazioak mapa edo globo batean kokatu

→ Denboran bere burua kokatu.

Denboran bere burua kokatu eta iraupen batzuk neurtu

Gertakari batzuk denbora luze batean aurkitu eta kokatu

→ Munduko antolamolde batzuk arakatu

Gizon eta emazte batzuen bizimoduak (elikadura, bizitegia, jantziak, tresnak,...) eta munduaren irudikapen batzuk alderatu

Ulertu espazio bat antolatua dela

Paisaiak identifikatu

Funtsezko ikaspenen irakaskuntza zikloko programa (2015eko azaroaren 26ko BO)

3. zikloa

Historia

→ Denboran bere burua kokatu: hozka historikoak eraiki

→ Garai historiko handiak kronologikoki kokatu

→ Egintza batzuk bata besteen arabera ordenatu eta garai edo denboraldi eman batean kokatu

→ Datu historikoa manipulatu eta berriz jarri testuinguru desberdinetan datu historikoekin lan eginez, ikasleek lehenik ikasten dute fikzioaren historia antzematen eta ikasten, ulertzen hasten dira iragana galdera iturria dela.

Ikasleak lehen denbora batean historiaren aztarna konkretuekin eta haien zentzumenekin, haien ingurumenarekin loturik, erkatzen badira ere, pixkanaka denboran eta espazioan urrunagoak diren mundu batzuk aipatzen dituzten beste iturri eta beste aztarna batzuk ezagutuko dituzte.

Ulertzen dute historiako kontatizunak etengabe elikatzen eta aldatzen dituztela aurkikuntza arkeologiko eta zientifiko eta iraganaren irakurketa berrituen bitartez. CM1ean berean abiatu urratsak berriz ezarriak eta aberastuak dira: zoin da denbora zaharretako historiaren kontakizun baten eraikitzeke iturriak? Nola erkatu aztarna arkeologikoak eta iturri idatziak?

Programak ikasketa gai zehatz batzuk eskaintzen baditu ere, irakasleek segurtatuko dute ikasleek arakatu munduen irudikapen orokorrak burutu ditzaten. Sekuentzia bakoitzean mapa historikoak ikertzea, ikasketa gai batzuk testuinguratzeko molde bat da.

Ikusi espazio guztiak, norbera bizi den munduaren testuinguruan kokatuak izan behar dira, ikertu denboraldian. Irakasleek segurtatuko dute ikasi egintzen neurri sinkronikoak eta diakronikoak ikasiak direla. Iraupen luzeaz duten pertzepzioa horrela eraikitzen segitzen dute.

Sendotze zikloko irakaspen programa (2015eko azaroaren 26ko BO)

Geografia

Bere burua espazioan kokatu, hozka historikoak eraiki

- Hozka geografiko handiak izendatu eta kokatu
- Leku bat izendatu eta espazio geografiko batean kokatu
- Espazio batzuk izendatu, kokatu eta ezaugarritu

Nonbait bizitzearen nozioa nagusia da 3. zikloan; ikasleak laguntzen ditu helburua eta geografiaren irakaskuntzaren metodoez jabetzeko. Geografian, nonbait bizitzeak ez du erran nahi bizilekua toki batean ukaitea.

Nonbait bizitzeari interesatzeak erran nahi du gizakiek haien bizi esparruak nola antolatzen eta praktikatzeko dituzten behatzea, neurri guzietan. Horrela, « nonbait bizitzeko moldeen » azterketak ikasleak sinpleki sarrarazten lagundu behar ditu, kasu biziki konkretru batzuen bitartez, arrazoinamendu geografikoan, lurradeekin eta praktikatzeko, sortzen, antolatzen, ordezkatzeko dituzten lekuekin neurri desberdinetan bizi diren pertsonen eta gizarteek dauzkaten harremanen ezagutza, azterketa eta ulermenaren bitartez.

Sendotze zikloko irakaskuntza programa (2015ko azaroaren 26ko BO).

Arteen historia

Arteen historiaren diziplina anitzeko eta zeharkako irakaskuntzak ikaslearen kultura artistikoa sendotzen du iragan eta gaurko korrante artistiko desberdin eta nagusietatik hartu erreferentziez jabetuz eta haiek, metodo batzuen ekarpenari esker, espazioan eta denboran kokatzeko, interpretatu eta harremanetan ezartzeko. Obrei eskaini begirada sentikor, eskolatu eta zentzuzko bat garatzen laguntzen du.

3. ziklo osoan gaindi, arteetako historiak beste irakaspenen arteko lotura sortzen laguntzen du eta haien kultur izariari balioa ematen. Arteetako historian sartzen dira ahal bezainbat iraganeko eta gaurko adierazpen artistikoak, jakitunak eta herrikoak, mendebaldekoak eta mendebaldetik kanpokoak. Honen irakaskuntza tokiko bezainbat nationala eta nazio artekoan bermatzen da, baliabide numerikoak ustiatuz besteak beste.

Ikaslearen arte eta kultur heziketaren osagaia izanki, obreetara heltzea eta jakintzen jabetzea uztartzen ditu arte ederren, musikaren, antzerkiaren literaturaren eta zinemaren usaiko mugetan gelditu gabe. Jakintsua bezain bat herrikoa edo tradizionala den ondare ahal bezain anitzaren hantatzaren gainean oinarritzen da.

Arlo guzietako jardura artistikoez aberasten da.

- Arte obra baten ezaugarriak erabilpen batzuei lotu, bai eta honen sortzearen historia eta kultur arloko testuinguruari
- Obra garaikide bat edo batzuk haien artean eta historian, geografian edo frantsesean ondorio historiko bat, garai bat, eremu geografiko bat edo testu batekin harremanetan eman.
- Obra eta objektu higigarriak eta biziko erabilpen eta moduekin harremanetan eman.
- Nork bere burua kokatu museo batean, arte leku batean, ondare gune batean.
- Nork bere burua kokatu museo batean edo arte leku batean, planoak eta argibideak irakurri eta ulertuz.
- Ondarearen sunsiterraztasunaz ohartu.
- Museoaren antolaketa lehener printzipio handiak.
- Kontserbazio, zaharberritze eta hedapenaren lanbideak.
- Obra edo gela baten identifikazioa eta kokapena.

Sendotze zikloko irakaskuntza programa (2015ko azaroaren 26ko BO)

Moral eta herritar irakaskuntza

Sentikortasuna: norbera eta besteak

Bestea errespetatu eta desberdintasunak onartu: besteen errespetua haien aniztasunean, besteari eragin kalteak; desberdintasunen errespetua, irekitasuna; aniztasuna, sinesmen eta segurtamenei errespetua; besteari laguntza.

Jujamendua: norberak eta besteekin pentsatu

Ñabardurak egin bere ikuspuntuari dagokionez, besteen ikuspuntua kontutan hartuz: aurreiritziak eta estereotipoak (arrazismoa,...)

2015eko ekainaren 25eko 6. BO berezia

Erakusketa aitzin kontutan hartzekoa

Historia

- Hitoriaren, eta bereziki arkeologiaren iturriak identifikatu - ik. 929. TDC , L'Archéologie, 2007ko otsaila eta Anne Flouest/Jean André, L'archéologie au quotidien, CNDP sarea, 2001
- Tromelineko esklabo ahantzien historia XVIII. mendeko Europa kolonialaren testuinguruan kokatu (merkataritza triangeluarra, zintzotasun merkataritza, koloniak, ...)

Geografia

- Erakusketan aipatu lekuak begiztatu (Baiona, Maskareinak, Madagaskar, Tromelin) eskala desberdineko mapetan eta globo batean
- Itsasoz haraindiko Frantzia aipatu, bereziki TAAF-ak - ik Géographie à vivre, Accès éditions, (Tome 3, Période 3: la France dans le monde)
- Madagaskaren, eta Réunion, Maurizio eta Tromelin uharteetan gaur egun bizitzeko nozioa landu

Erakusketaren bisitari segida

Literatura/idazketa

- « Les Robinsons de l'île Tromelin » albumaren irakurketa segitua
- « Les esclaves oubliés de Tromelin » Komikiko orri batzuen azterketa
- Robinsonada batzuen irakurketa eta idazketa
- Bidaia liburuxka batzuk irakurri eta aztertu.
- Bidaia liburuxka bat idatzi, erakusketan aipatu pertsonai baten lekuan emanez (hondoratu xuri bat, esklabo hondoratu bat, bizirik iraun dutenen salbamenduan parte hartzen duen Dauphineko itsasturi bat,...), arte plastikoekin loturan - ik. Projet lecteur, Accès éditions (6. Le récit de voyage) Eta www.cndp.fr/crdp-creteil/telemaque/comite/voyage.htm (Bidaia liburuxkatik bidaia kontakizunera, idazketa pistak eta bibliografia, Télémaque gunea, gazte literatura, Créteileko Akademiako CRDP)
- SOS batzuk idatzi itsasora bota botoiletan emateko

Arteen historia

Arkeologia aipatzen duten obren ezagutza eta azterketa

Anne eta Patrick Poirier

Zizelkariarkeologoak direla diote.

Monumentuak edota hiri osoak, zatika lurretik ateratzen dituzten indusketetatik abiatzen dira.

Haien aburuz, suntsitzea arkitekturaren fase dinamikoa da, orduan posible baita eraikuntzen osotasuna ulertzea. Bestalde ere, Aitzinaroak liluratzen ditu, ez historialariena, baizik eta mitologia eta elezaharrena, Titan eta jainkoen borrokarena besteak beste. Monumentu ezagunen estiloa kopiatzen badute ere, , Italia, Grezia edo beste lekuetako zoruaren azpian milaka urte hauetan lurperatu beste mundu bat eraikitzeke da.

Aitzin-aitzinako guneak dira, « arketipo galduak », gizadi usu erraldoia, oroimenetik haratagoko dituzte haien irudimeneko hirietan aipatzen. Arkeologiaren balio poetikoak eta jalgiaz dezakeen sarbiderik gabeko misterioak ditu goiargitzen. Zizelkadura lanak literatura asmamenarekin batera segitzen du (indusketen kontakizun nobelatuak, liburutegi suntsitu bateko testu galduak).

Hondatu eraikinak (ik. Ausée) edo zinezko neurriko muntaketak (ik. la mort d'Ephialtes) kokatuak diren maketa handiak egiten dituzte.

Omar Youssoufi

« Aztarnak eta keinuak haien kodeez askaturik idazketa grafikoa berriz bilakatzen » diren hondakinak asmatzen ditu.

Axel Cassel

Haren atelerian, obraleku guneeetan, etxe suntsitu edo kondnatuetan, haiek berak denbora epe oso laburretan, zenbait egunen burukoak batzuetan, iraganean kokatuak izanki gure oroimenean baizik bizirik irauten ahal ez duten lekuak beraz, fabrikatu zizelkadurak eta objektuak muntatzen ditu.

Mundu honetako gauzak, heriotza, erritoak eta gorputzaren inplikazioa bezalako gaiek leku handia dute desmarta honetan. Gune « asmatu » hauek batzuetan haurrei eskainiak zaizkie sasi-indusketa arkeologikoak burutu ditzaten.



JEPHAN DE VILLIERS

Oihanean bildu materia naturaletatik abiatuz, Jephane de Villiersek « Arbonie » alegiazko zibilizazioa sortzen du. Biztanleak ikusgai dira. Proportzio desberdinekoak dira, hamarnaka zentimetrokoak tipikoki dagokienez, metro bat eskasekoak handienentzat. Usu aipatuak diren jendaldeak, zurezko erretaletan, kutxetan sartu edo metaturik ibiltzen ahal dira.

WOM JU LIM

Korear artista honek gorputza, espazioa eta oroimenaren arteko lotura arakatzen du.

Bere burua galdekatzen du, besteren artean, kultur ingurumenak gure hautematean eta gure bizipen pertsonalarekin nahasten diren hedabideen zereginari buruz galdekatzen du bere burua. Haren gogoeta, zizelkadurak, argi jokoak eta bideo/argazki proiektzioak uztartzen dituzten hedabide desberdin batzuen bitartez agerrarazten du. Ikuslea esperientzia jostagarri eta poetikoan murgiltzen duen konbinazio honi esker, Won Ju Limen iragana eta oraingoa, agerpena eta ez egotea, oroimena eta fantasma, indibiduala eta kolektiboa bezalako gai antagonistak aipatzen ditu. Haren obra ezagunenak kolorezko plexiglas gardenez egin eta bata bestearen gainean metatu egitura kubikoak dira, eraikinak berriz sortzeko gisan. Zizelkadura horiek argitzen dituzte hiri paisaia proiektio batuzek eta, errefrakzioz, hauek desformaturik proiektatuak dira murruren gainean.

Won Ju Limen muntaturak bisitatu dituen leku desberdienez dituen oroitzapen eta inpresioei bezain bat arkitekturaren historiari, zinemari, literaturari lotuak dira.

MARK DION

Laborategi zientifikoek eragin haren muntadura konplexuei esker ezaguna den Mark Dion gizakiak naturarekin atxikitzen duen harremanari bereziki interesatzen zaio, Aitzinarotik ditugun jakintza eta zientzia diskurtsoen bitartez. Haren egitasmoak usu espedizio naturalista arkeologikoaren jantziez estaltzen da, esploratzailea, biokimikaria, detektibea edo arkeologoaren jarrera eta janzkerak batzuetan imitatzen dituen artistaren aurpegia inplikaturik. Haren ondorioen artean, Europar XVI. mendean garatzen diren kuriositate kabineteei errazki alderatzen ditugun muntadura batzuk, baina xede arrunt desberdinak dituztenak. Mark Dionen sailkapenerako gustua imitatu eta gehien bat galbideratzen du: metodoak, ezaugarriak, hiztegia hartzen ditu jakintza eta erakusketa fenomenoak hobeki galdekatzeko.

Haren obren umorea eta izaera absurdoak aski fite agerian uzten du artistak duen jakintza espezifikoaren mugak naturaren errealitatearekin buruz buru jartzeko duen nahikeria sakona.



TSUYOSHI OZAWA (Les Koropokkuru)

« Japoniar artista honek, aktualitateari bortxaz egokitu nahi ez duen ontze handiko obra geldo bat sortzen du. « My knowledge about Koropokkuru » haren saila herri batek beste batengan lukeen nagusitasun harroputzari dagozkion teoria zahar haiei erantzuna da. Meiji aro hastapeneko antropologo baten tesi bitxiak erabiliz, Ozawak indusketa arkeologiko faltsuak burutzen ditu bere baratze zolan, sekulan izaterik izan ez duen kultura baten fosilak berreraikitzen ditu, mendi baten zuloetan sortu delakoan fisikoki ttipia daitekeen japoniar herri batena, zuhaitz baten ostopean bizi dena, izariz kanpoko amuarrainak arrantzatzuz. » (Eric Mézil, Ozawa Tsuyoshi katalogotik hartua: Answer with Yes and No, Mori art museum, 2004.



CHARLES SIMMONDS

1970etik beretik, artista estatubatuar honek berriz asmatzen du artoski juntatu adreilu ttipiko etxebizitzetan aterpetu litekeen Little people, gizaki ñimiñoen zibilizazioa. Charles

Simmondsek, erdi aurtikiak dituzten bizitegiak New Yorkeko auzotegi pobreenetan eraikitzen ditu, haren buztin lur Dwellings-ak abandonatutako bastizen murren legenduneetan ezarriz.

Oinezkoek begiratzen zuten lanean zebilelarik eta haien bizitzako zailtasunak kontatzen zizkieten; zizelkariak, ondotik, azaltzen zien herri ikusezin bat aterpetzen zela fabrikatzen zituen lurrezko etxeetan; ondoz ondoko belaunaldiak, parte goreneta arteketan egoten ziren ihiztariak eta bertan bizi ziren artzainak aipatzen zituen. Egoitzak hauskorrak ziren eta ez zuten luzaz irauten, aro gaiztoek eta jendez gainezka dauden auzotegietan ezin saihestuzko istripuek suntsiturik.

Hondoratze batzuen aipamena egiten duten obren ezagutza eta azterketa.

ERDI-AROA

Sainduei eskaini ezin zenbatu poliptikoen saileko obra desberdinak, adibidez: Fabriano, San Nikolas Barikoa, 1425 inguru San Nikolas Barikoak, marinelen patroia sainduak ekaitzak kinka gaiztoan ezarri itsasontzi bateko bidaiariak salbatzen ditu.

Giovanni di Paolo Grazia, San Nikolas Tolentinokoa itsasontzi bat salbatzean, 1457.

XVII. HOLLANDAN, ITALIAN, FRANTZIAN

Itsasoko hazkunderarekin European, itsasoa Indietaraino irekitzen da eta landu daitekeen gaia bilakatzen da. Itsas margolaritza artearen historian sartzen da. Hondoratzea holandar itsas artearen oinarritzako elementua bilakatzen da. Haarlemeko eskola itzal handikoa da XVII. mendearen lehen laurdenean (Vroom, Cornélis, Claez, Verbeeck et Willaert).

Garai berdinean, Italia itsasoaren margolaritza frenetikoa neurrigabe maitatzen hasten da. XVII. mendearen lehen erditik goiti, genoar eskola batek, hondoratzeak eta ekaitzak ausarki ekoizten ditu, baroko izpirituari jarraikiz (Tassi, Tavella, Mulier).

Luis XIV.ak Van Plattenberg eta ondotik Borzone « Erregearen itsasoetako margolari » titulua emanez Versaillesera deitzen ditu.

XVIII. MENDEA FRANTZIA ETA INGALATERRAN

Itsas zorigaitzak ez dira gai nagusitzat hartuak Frantzian. Joseph Vernet margolariak, italiar estetikaz eta Salvator Rosaren « Marines agitées » obraz baliaturik, Frantziako portuen irudikapen lasaiago eta maila gorenekoak burutu aitzin, ekaitzek jo itsas-hegi batzuk asmatzen ditu. Loutherbouurg frantses transfugak dio jakintza hau Ingalaterrari ezagutarazi bere ekaitzak arrakasta handia lortuz 1771ean Londresera inportatuz.

GARAI ERROMANTIKOAN

Europako itsas artistak distiratsuak dira:

Delacroix, Géricault, Isabey, Le Poittevin, bai eta marina saileko hiru lehen margolari ofizialak ere (Garneray, Crépin, Gudin). Victor Hugok itsasoko margolanak marrazten eta tinta beltzeko marrazki urkoloreztatuak egiten ditu.

Turnerek neurrigabekeriaren margolaritzako adierazpenaren bilaketa iragartzen duen hondoratze bat margotzen du 1805ean. Usu berriz landuko du ozeanoaren neurri dramatikoaren gaia.

Aivazovski erromantizismoaren irudimenaren figura handia da ere.

Uharteari buruzko obren ezagutza eta azterketa.

MUNTADURA

Christo eta Jeanne Claude, Surrounded islands, 1980-1983

Biscayne badian zabortegeiek osatu hamaika uhartexka flotagarriak oihal arrosa magenta batekin inguratu dituzte artistek (Miami, Florida).

MARGOLARITZA

Marc Chagall, Le message d'Ulysse, 1969

Uharte batzuek puntuzkatu Ulisesen bidaiako etapak irudikatzen duen 11 metroko freskoa

Giorgio de Chirico, Le retour d'Ulysse, 1968

Mitoaren irudikapen parodikoa, barneko bidai higitu gabea, trufa aire batekin aipatzen duena, elementuak alderantzizkatuz .

ARKITEKTURA

Palm islands, Jumeirah uhartea, Dubai

Zerutik ikusita, uhartedi horrek palmondo forma du. Enborrak eta arkuak merkatal eta turismo gune zabalak aterpetzen dituzte; palma hostoak, dirudunentzako etxeak.

Lilypad Monacoko badian

Vincent Callebaut belgiar arkitektoak itsas-hegiko estatu batzuen lurralde hedapen beharrei erantzun diezaiekeen klimako iheslarietarako hiri flotagarri baten egitasmoa sortu du.

L'île AZ, Jean-Philippe Zoppini

Multzo flotagarri baten maketa

ARTE PLASTIKOAK

→ Irudimenezko arkeologia eta zibilizazioak sortu

Erroztatze artistikoak: ikus gorago

→ Inbentario arkeologiko faltsuak eta/edo kuriositate kabineteak sortu

→ Erroztatze artistikoak: Mark Dion, Thomas Grünfeld, André Breton, Yolande Fièvre

→ Irudimenezko kartografien inguruan lan egin

Erroztatze artistikoak: Dennis Oppenheim, Alighiero e Boetti, Richard Long, Stalker, David Renaud, Yves Klein, Molly Holmberg

→ Basamortu uharte batean bizirik irauteko talismanak fabrikatu

Erroztatze artistikoak: Sydney Scherr artistaren lanak, egiptoar ainginarriak, afrikar gri-griak.

Bibliografia

Irakasleak

1. TROMELINI BURUZKO OBRAK

Max Guérout/Thomas Romon, Esclaves oubliés de Tromelin, CNRS Editions, 2010, berrargitaraze emendatua 2015.

Max Guérout, Tromelin, Mémoire d'une île, CNRS Editions, 2015.

Sylvain Savoia, Les esclaves oubliés de Tromelin, Aire libre-Dupuis, 2015 (Komiko honen orriak erakusketan agertzen dira).

Irène Frain, Les naufragés de l'île Tromelin, J'ai lu, 2009 (nobela).

2. XVIII. MENDEKO HISTORIARI BURUZKO OBRAK

Bordeaux au XVIII^e siècle, Le commerce atlantique et l'esclavage, Le festin/Akitaniako Museoa, 2010

La traite bayonnaise au XVIII^e, Jacques de Cauna, Marion Graff, Cairn Editions, 2009.

Marcus Rediker, A bord du négrier, une histoire atlantique de la traite, Seuil, 2013.

Jean Meyer, Esclaves et négriers, Découvertes Gallimard, 2007

René Favier, Les Européens et les indes orientales au XVIII^e siècle, Synthèse histoire Ophrys, 1997.

3. INTERNET GUNEAK

<http://minisites-charte.fr/sites/> alexandrine-civard-racinais/

Tromelin uharteko Robinsonen idazlearen gunea, besteak beste haren liburuaren laburpena, honi buruzko mini quizz bat, 3. ziklorako dokumentuak (Nanteseko historia museoak linean ezarri baliabideak), TAAF-ek linean ezarri baliabideak, erakusketaren luzapena egiten duen galdetegi bat eta aktibitateak obraren irakurketari jarraikiz, atzemanen dituzue bertan.

[www.taaf.fr/les-esclaves-oubliesde-](http://www.taaf.fr/les-esclaves-oubliesde-tromelin) tromelin

TAAF-en gunea (Frantses Austral eta Antartikoko Lurrak) bertan atzemanen dituzue besteak beste 2013ko indusketa kanpainako eguneroko egunkaria bai eta Tromelinen burutu beste hiru kanpainen atzera begirako bat.

www.inrap.fr

INRAP-en gunea (Prebentzioko ikerketa arkeologikoen Institutu nazionala)

Bertan « Tromelin » joz atzemanen dituzue, artikulua andana bat, erakusketarekin lotu gaikako txosten bat barne, gaur egungo uhartearen argazkiak, indusketa kanpainen garaian atzeman higigarri eta egiturak.

archeonavale.org/gran2012/index.php/2012-02-13-18-51-03/mission-2013

La dernière mission de fouilles sur l'île Tromelin racontée par Max Guérout (GRAN : Itsas Arkeologia Ikerketa Taldea) bera ere bornuko liburuxka moldean.

4. DOKUMENTAZIO PEDAGOGIKOA

TDC n° 983, L'imaginaire de l'île, 2009ko azaroa

TDC n° 929, L'Archéologie, 2007ko otsaila

TDC n°1058, Les sciences de l'archéologie, juin 2013ko ekaina

Anne Flouest/Jean André, L'archéologie au quotidien, CNDP réseau, 2001

Michèle Mazalto, Arts visuels et temps, Sceren, 2010

Yves Le Gall, Arts visuels et voyages, civilisations imaginaires, Sceren, 2007

« Robinsonnades »-i buruzko txostena : http://www.cndp.fr/crdp-toulouse/spip.php?page=dossier&num_dossier=81

Tromelineko indusketei buruzko 50'-ko bideoa:<https://www.youtube.com/watch?v=HzKblzJBz6U>

Haurren Bibliografia

1. HISTORIA /ARKEOLOGIA

Max Guérout

Esclaves et négriers, Collection voir l'histoire, Fleurus, 2012 (Tromelineko miaketei buruzko KD batekin) obra dokumentala da.

Francis Dieulafait, Copain de l'archéologie, Milan, 2016 (berrargitaratzea)

Raphaël de Filippo, L'archéologie à petits pas, Actes Sud junior/INRAP, 2007

Philippe de Carlos, Le dico de l'archéologie, De la Martinière jeunesse, 2006, BTJ 515,

Qu'est-ce que l'archéologie ?, éditions PEMF, 2006ko martxoan

David Macaulay, La civilisation perdue, Deux coqs d'or, 1982

2. TROMELIN

Alexandrine Civard-Racinais/Aline Bureau, Les Robinsons de l'île Tromelin, L'histoire vraie de Tsimiavo, Belin, 2016 Biziki album ederra da, zenbait orri dokumentalekin bukaeran.

- Mon quotidien 2016ko apirilaren 27

- Histoire Junior n°47, 2015eko azaroaren 23

3. LES « ROBINSONNADES »

Bibliografia Ricochet gunean <http://www.ricochet-jeunes.org/themes/theme/232-robinsonrobinsonnade>

Xehetasunak eta harremana

Régine Etcheverry

r.etccheverry@musee-basque.fr

06 25 24 34 24 / 05 59 59 57 52